



Fantasiak eta beldurrak Antzoki Zaharrean du zita

JAIALDIA ▶ Urriaren 28tik
azaroaren 4ra arte luzatuko da
aurtengo jaialdia

SAILAK ▶ Sail Ofizialeko filmak eta
David Cronenbergi eskainitako
saila ikusi ahal izango dira ▶ 8

ZERGAK ▶

PPk eta EAK
zergak ez
igotzea
eskatu dute

Zuzenketak aurkeztu
dituzte biek ▶ 3

FERNANDO GARIJO ▶ LOIOLAKO APAIZA



RAUL PEREZ

«Erretiroa
hartu arren,
Loiolan
jarraituko dut»

Bihar omenaldia
egingo diote ▶ 5



'Gure artea 2006' erakusketa Koldo Mitxelenan

ERAKUSKETA ▶ Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak antolatutako arte plastiko lehiaketaren izen bera du Koldo Mitxelenan aurkeztu duten erakusketak. *Gure artea 2006* erakusketa, 16 artis-

taren edo artista talderen obrak daude. Koldo Mitxelenan ikusgai dauden lanak Jaurlaritzaren lehiaketan finalistak gelditu direnen obrak dira. Urtarrilaren 5era arte egongo da zabalik. ▶ 9

LARRATXO ▶

Leosiñeta
elkartek
25 urte
bete ditu

Hilaren 29an
I. Larratxoko Krosa
egingo dute ▶ 4

JATETXEA
Juanito kojua

ESPEZIALITATEA: ARRAINAK ETA ITSASKIAK

Kaia kalea, 14 • ☎ 943 42 01 80 • Faxe: 943 42 18 71
20003 DONOSTIA • www.juanitokojua.com

ER

ELISA RIVERO

Loiola kalea, 15
20005 DONOSTIA
Tel.: 943 425146

LORETOPETIK ▶ XABIER ARZELUS (IDAZLEA)

Urumean munstrorik ez, gaur



Donostiako ohitura *tipikoen* artean sailkatu beharko lukete Kursaleko zubitik Urumeako uretan gora eta behera mugitzen diren arrainak begiratzea. *Etxeoentzat* guztiz normala da korrokoiak egotea, baina ikuskizun bitxi bilakatzeko da kanpotik etorritakoentzat, ustekabearen eta musutruk Urumearen bokalean arrain pila ikusteko aukera izaten baitute, Aquariumeraino joan beharrik gabe. Eguzki izpiek korrokoiak zilarrezkoak bilakatzeko ditue-

nean, kanpotarrek «Hara! hara!» oihukatzen dute (bakoitzak bere hizkuntzan, noski), momentu hunkigarria argazki eta bideo kameraz betirako grabatuz.

Doako ikuskizun honen arrakasta ikustean, 1937. urteko aldizkaritzarekin Urumeako bokaleko arrantzaleei buruz argitaratutako idazlan bat etorri zait burura. Bertan ziotena egia bada, badirudi azken 70 urteetan gure ibaiaren arrain aberastasunak gainbehera nabaria egin duela. Gaur egun Urumea bokaleko biztanle ia bakarrak korrokoiko janezinak diren artean, garai batean Kursaal zahararen ondoko uretan beste arrain mota asko baikeneuzkan.

Ia Gerra Zibilaren hasieratik Donostian inprimatutako *Fotos* aldizkari falan-

gistaren arabera, Kursaleko zubian arrantzaleek, besteak beste, lupiak, korrokoiak, pantxoak, urraburuak eta, batez ere, mero zuriak harrapatzen zituzten —aldizkaria faxista izan arren, alor honetan dioena, bederen, sinetsiko dugu—.

Meroak ziren, zalantzarik gabe, Urumeako bokaleko munstrorik ikusgarrienak. *Fotos*-ek zioenez, arrunta zen egunero bi edo hiru kiloko meroak harrapatzea. Kursaleatik gertuko Arrantzale Elkarteak kideak ziren, noski, arrantzarik trebeena. Zulaika —barka, falangistentzako Zulaika— abizeneko arrantzale batek, esaterako, 27 kiloko mero bat harrapatu omen zuen, eta Juanito el Peluquero izenekoak, gauerdiko euritsu

batean, 15,5 kiloko beste bat hartu zuen nekez. Aipatu arrantzaleek adierazita koaren arabera, meroek oso matrailezur indartsu eta gogorra zuten, eta hiru milimetro diametroko amuak paperezkoak bailiran hausten zituzten.

Aldizkaritzarrak kontaktzen zuenez, itsasgoran meroak Loiolaraino igo eta hango ur loitsueta bizi ziren aingirak, karramarroak eta iskirak zituzten gogoko. Eta, noski, dieta horrekin bazuten sendoak izaterik. Tabira izeneko arrantzaleak 1937an kontatu zuenez, gauerdian hiru ordu luze eman behar izan zituen amuan trabatutako mero basati bat lehorrera igotzeko. Azkenik, zortzi kiloko mero borrokariak amore eman behar izan zuten, Tabiraren eskuak odolatu utzi ondoren.

Aspaldiko kontuak dira hauek, ordea. Gaur, gure korrokoitxoekin konformatu behar, lehorreko turistaren plazererako.

BI HITZETAN ▶ MARIA PILAR RODRIGUEZ (DEUSTUKO UNIBERTSITATEKO IRAKASLEA)

«Emakumeen aurkako biolentziaz komunikabideen araberrako irudia dugu»

Aitziber Iartzar ▶ Deustuko Unibertsitateko Generoa eta Komunikabideak Ikerketa Taldeak *Tratamiento de la violencia de genero en la prensa vasca* izeneko ikerketa kaleratu du, Emakunderen laguntzaz. *Berria*, *Gara*, *Deia*, *El Diario Vasco* eta *El Correo* egunkariak aztertu dituzte. Ikerketa Larraitz Ariznabarretak, Maria Jesus Korkostegik, Maria Jesus Pandok, Begoña Sanzek eta Maria Pilar Rodriguezek egin dute. Rodriguez donostiarra elkarrizketatu dugu.

Zein da zuen ikerketaren ondorio nagusia?

Genero bortitzkeriaren inguruan kontzientziazioa handitu dela ikusi dugu, baina oraindik ere ikerketa sakonagoak, erreportaje, elkarrizketa eta iritzi artikuluko gehiago behar dira, batez ere, emakumeen aurkako biolentziaren arrazoiak azaltzeko. Gertaera zehatzak eta isolatuak jasotzen dituzte komunikabideek, baina arrazoietara jotzea eta konponbideak bilatzea garrantzitsua da.

Terminologiari dagokionez, prentsa idatziak terminologia egokia erabiltzen al du?

Genero indarkeria, emakumeen aurkako bortitzkeria, tratatu txarrak, etxeko biolentzia... erabiltzen dituzte komunikabideek, eta gure ustez, ez da bat bera ere baztertu behar, guztiek dutelako egiaren zati bat. Hala ere, gu genero indarkeria erabiltzearen aldekoak gara. Izan ere, genero hitzak badu,



Liburuaren egileak; Maria Pilar Rodriguez ezkeretik hasita bigarrena da. AITZIBER IARTZAR

sexu hitzak ez bezala, egitura sozial eta kultural kutsua. Sexua biologikoa da, baina maskulinoak eta feminoak badute karga bat, kulturalki erakitako karga. Sexismoa eta matxismoa karga kultural horren zati dira, eta horregatik nahiago dugu genero indarkeria esamoldea erabiltzea. **Zenbait estilo liburuan, ordea, emakumeen aurkako biolentzia terminoa hobesten dute.**

Ongi iruditzen zaigu. Baina,

IKERKETA

«'Berria'n eta 'Gara'n genero indarkeriarekiko kezka handiagoa dute; aurrerakioagoak dira»

karga sozialagatik aukeratu dugu genero indarkeria. **Euskarazko komunikabide bat —Berria— aztertu duzue. Berria gaiari buruzko tratamendua hobea al da?**

Bai *Berriaren* eta bai *Gararen* kasuan, ikusi dugu komunikabideek eta kazetariak gairekiko kezka handiagoa dutela, aurrerakioagoak dira. Aztertutako beste egunkarietan, gaiari buruz beste batzuek idatzitako iritzi artikulua eta sartzen dituzte, baina ez dute gai komunikabidetik bertatik lantzen. *Berriak* eta *Garak* gai beraien kabuz lantzen dute. **Komunikabideek gai sozializatzeko ardura dutela diozue. Zein motatako ardura?**

Nik uste dut ardura gizarte osoarena dela. Askoz errazagoa da gauzak besteekin behar dituztela pentsatzea, baina denok egin behar dugu zerbait. Saiatu behar dugu arlo honetan ideologia justuagoa izaten; bai umeen hezkuntzan, bai auzotarrekiko tratuan... Mentalitate irekiagoa eta aurrerakioagoa landu behar dugu.

Kazetarien kasu zehatzean, gaiari buruzko estilo liburuak eraginkorrak al dira?

Bai, inolako zalantzarik gabe. Azkenean, sortu dituzte gaiari buruzko estilo liburuak, eta kontuan hartzen dituzte. Lan hau egin genuenean komunikabideetako zuzendariekin hitz egin genuen, eta terminologiari dagokionez, estilo liburuak erabiltzen dituzte.

Liburuan diozue biztanleen %60ak komunikabideen bidez baino ez duela emakumeen aurkako biolentziaren berri. Ezkutuko errealitatea al da oraindik?

Emakume askok jasaten dute biolentzia, baina zorionez, ez zaigu guztioi tokatzen. Emakumeen aurkako biolentziaz komunikabideen araberrako irudia dugu. Horregatik da hain garrantzitsua komunikabideetan tratatu orekatu eta zuzena jasotzea. Izan ere, modu horretan irakurtzen dugunon buruan irudi zuzenagoa sortzea lortuko dugu.

► zure iritzien berri emateko, iritzia@irutxulokohitza.info eta Katalina Eleizegi 36 behekoa helbideak edo 943 44 65 32 faxa erabili, izena adierazita; Hitzak mozteko eskubidea du
► IRUTXULOKO HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanetan eta iritzien erantzukizunik

OGASUNA ▶

Zergak jaistea eskatu dute PPK eta EAK

Zenbait tasen igoerei zuzenketak aurkeztu dizkiete Ogasun Batzordean

ION LOPEZ

Datorren urteko zerga eta tasen prezioa erabakitzeko Udaltzarraren aurretik Ogasun Batzordearen bilera izan zen atzo. Oposizioko alderdiek Gobernu Batzordeak aurkeztutako proposamenari zuzenketak aurkeztu zizkieten atzoko batzordean. Oposizioko alderdien zuzenketak guztiak ildo beretik joan ziren. Proposatutako zerga eta tasen igoerak gehiegizkoak direla azaldu zuen oposizioak.

PP izan zen lehenengo hausnarketa egin zuena. Maria Jose Usandizagak esan zuenez, Gobernuak hartu duen jarrera errazena da. «Ez dira zergak igo behar gehiago jasotzeko. Hori egitea erraza da. Kudeatzen jakitea da garrantzitsua». Azken hiru urteetan zergak gehiegi igo dituztela kritikatu zuen PPK: «Azken hiru urteetan zergak izan duten igoera ikusita, aldaketa handiak egin behar dira aurrean». PPK

bost zuzenketak aurkeztuko dizkio Gobernuaren proposamenari. Batetik, Ondasun Higiezinaren Gaineko Zerga %3,5 jaistea eta Ondasun Rustikoen Gaineko Zerga ezabatzea eskatu dute. Bestetik, Ibilgailuen Gaineko Zerga eta plusbalioak %10 jaistea eta Aktibitate Ekonomikoen Gaineko Zerga %20 jaistea proposatu dute. Tasei dagokienez, prezioak ez igoztea proposatu du PP alderdiak.

EAK ere zuzenketak aurkeztuko dizkio Gobernuaren proposamenari. Guztira, hamabost zuzenketak aurkeztuko ditu. «Gobernuak proposatzen dituen zenbait igoera gehiegizkoak dira. Garraio publikoa, hilerriak eta garabiaren tasak gehiegizkoak dira» esan zuen Jaione Arratibel EAKo bozeramaileak. Zergei dagokienez, prezioak mantentzearen aldeko apustua egin du EAK. Eskaintzen diren zerbitzuak ez direla igoera horiekin bermatzen salatu zuen.



PPko zinegotziak agerraldi batetan. ION LOPEZ

ELKARTASUNA ▶

Donostia Munduen Artean, berriro abian

Donostia Munduen artean ekimena berriro jarri dute abian. Elkartasun eta balio etikoetan urtean zehar lan egiten duten elkarte eta GKEk aukera dute ekimen honetan beren lanak aurkezteko. Urte bukaera arte 51 ekintza egingo dituzte. Antzezlanak, erakusketak, kontzertuak, hitzaldiak eta beste mota askotako ekimenak egingo dituzte.



Inhabamako Begiak erakusketan ikus daitekeen argazkia.

ONGIZATEA ▶

172.000 euro, zaharren apartamentuei

Berion, Benta Berrin eta Ategorrietan eraikitako zaharren apartamentuak kudeatzeko lehiaketaren oinarriak onartu ditu Gobernuak. 197 apartamentu hauetan zerbitzuak emango dituzten enpresek Udalarren baldintzak bete beharko dituzte. Udalak, bere aldetik, 172.000 euroko diru laguntza emango du apartamentu hauen funtzionamendu egokirako.

ONGIZATEA ▶

Zahar etxeen topaketak, 21ean eta 27an

Udaleko Ongizate Sailak martxan jarri duen +55 ekimenaren baitan, hiriko zahar etxeen topaketak antolatuta ditu. Altzako Tomasene eta Groseko Okendo kultur etxeetan egingo dituzte topaketak 21ean eta 27an. Dantza ekitaldiak, tai chi erakustaldia eta kontzertua izango dira.

ERRAUSKAILUA ▶

Errauskailuaren akordioa kritikatu du Baga Bogak

Bozeramaileen Batzordeak errauskailuari buruz herenegun hartutako erabakia «herritarren nahiaren aurka eta ezkutuan hartutako erabakia» dela salatu du Baga Boga Herri Ekimenak. Odon Elorza alkateak pausok aurkako norabidean eman dituela salatu du. Honez gain, Bozeramaileen Batzorde itxi batean erabakia hartzea kritikatu du.

INGURUMENA ▶

Egiako parkeko erakusketa zabalik

Berriro ireki dute Egiako parkeko Ingurumen Baliabideen Etxeko erakusketa. Aldaketa klimatikoari buruzko erakusketa zabalik egongo da ikastetxeentzat. Aldaketa klimatikoak sortuko dituen eraginei buruzko informazioa ematen du erakusketak.

TURISMOA ▶

Bulegoa pozik, iraileko bisitari kopuruarekin

Eustatek iraileko turismoari buruz egindako ikerketaren emaitzarekin pozik azaldu da Donostia Turismo Elkarteak. Iazko irailekin alderatuta, %15 hazi da Donostiara etorritako bisitarien kopurua. Bilbon %7 eta Gasteizen %6 igo da iraileko bisitarien kopurua. Donostian pasatutako gauen kopurua ere hazi egin da nabarmen. Irailean %12 hazi zen hiriko hoteletan pasatutako gauen kopurua.

BATZORDEAK ▶

Baga Bogak berriro salatu 'apartheida'

Udaltzarraren aurretik atzo egindako batzordeetara sarrera galaraztea salatu zuen Baga Boga Herri Ekimenak. Hilero bezala, Baga Bogak bilera horietan parte hartu ahal izatea eskatu zuen. «Berritoki ere, EAJk, EAK eta PPK ateak itxi dizkigute. Hiru alderdi hauek milaka donostiarron eskubide zibil eta politikoen aurka bat egin dute», salatu zuten Baga Bogako kideek.

Zatoz dastatzera!



**TABERNA
JATETXEA**

Fermin Kalbeton 3
Tel.: 943 429875



TABERNA

Mota guztietako pintxo hotzak eta beroak

Abuztuaren 31 kalea 13
Tel.: 943 424965

GANBARA
taberna • erretegia



San Jeronimo 21 - Tel.: 943 422575 - DONOSTIA

Parte Zaharreko mokadurik goxoenak!



**ARALAR
TABERNA**

• Askotariko pintxoak: hotzak eta beroak
• Arrainak eta haragiak

Portu kalea 10 • Tel.: 943 426378 Faxo.: 943 430759
www.baralar.com



**NARRIKA
TABERNA**

Narrika, 16
(Parte Zaharra)
Tel.: 943 42 73 27
DONOSTIA

Ogiarteko eta pintxoetan aukera ezin hobea

EGIA ▶



Lanak Deba Ibaia kalean

R. Perez ▶ Duela egun gutxi Deba Ibaiaren kaleko espaloia moztu zuten. Zulo handia egin dute espaloian hodiak sartzeko. Hain zuzen ere, zuntz optikoa sartu behar dute kale horretan eta baita Aldapa kalean eta Bidasoa Ibaiaren kalean ere.

AIETE ▶



Errepidea berritzen

R. Perez ▶ Egunotan Jauregi eta Marañon doktorearen kaleetako errepidea berritzen ari dira. Ez dira errepide osoa konpontzen ari, gaizki zeuden zatiak baizik. Lanak egiten ari diren heinean, errepidea, zatika, mozten ari dira.

LOIOLA ▶



Baldosa berriak jartzen

R. Perez ▶ Udaberriari zabaldu zuten Loiolako Atari Eder plaza, zeharo berritu eta gero. Hala ere, egunotan berriz ere esku hartu behar izan dute plazan. Hainbat baldosa hondatu egin dira eta horren ondorioz, berriak jartzen ari dira.

LARRATXO ▶ URTEURRENA

Korrika ospatuko du Larratxoko Leosiñeta elkarteak 25. urtemuga

Hilaren 29an ospatuko dute data berezia, eta krosa izango da ekitaldi nagusia

RAUL PEREZ

Larratxoko Leosiñeta elkarteak 25 urte bete ditu eta data berezia ospatzeko krosa antolatu du. Lasterketa hilaren 29an, igandea, izango da, 11:00etan.

Gizonezkoek zazpi kilometro eta erdiko ibilbidea egin beharko dute eta emakumezkoek bost kilometrokoa. Ez dira kilometro asko, baina aldaparik ez da faltako Larratxo eta Txirrita pasealekuan. Behobia-Donostia lasterketaren aitzakiarekin lasterkari asko erakarri nahi dituzte elkarteak. Irteera eta helmuga elkartearen egoitzaren aurrean izango da, Larratxo pasealekuan bertan. Alpatu lasterketan parte hartu nahi duten guztiak

josemiguel_i@arrakis.es e-posta helbidean eman dezakete izena. Probaren egunean ere izena eman ahal izango da, lasterketa hasi aurretik. Gizonezkoetan eta emakumezkoetan helmugara iristen diren lehenek sariak jasoko dituzte. Horretaz gain, Larratxoko lehen gizonezkoak eta emakumezkoak ere saria etxeratuko dute.

Lasterketa aurretik meza egingo dute hildako bazkide guztien omenez, eta proba eta gero luntxa izango da auzotar guztientzat.

Leosiñeta iturria

Leosiñeta elkarteak 1981an sortu zuten. Larratxo eta Lau Haizeta artean bazegoen Leosiñeta izeneko iturria eta hain zu-



Argazkian Leosiñetako zuzendaritzako lau kide. Ezkerrean, atzean, Cecilio Mielgo —presidentea— eta aurrean, Jose Miguel Iribarren; eskuinean, Juan Cruz Ruiz eta Manolo Jimenez. R. PEREZ

zen iturri haren izena hartu zuten elkarteak. 1980an Bertsolari elkarteak eratu zuten au-

zoan. Bertsolarin sartu ez ziren koadrila batzuk beste elkarte bat sortzeko lanetan hasi ziren.

Hain zuzen, Bertsolarin bertan egin zuten lehen bileretako bat. Eta bilera horien emaitza izan zen Leosiñeta elkarteak. Bertsolari elkartearen parearean izan du hasieratik egoitza; Larratxo pasealekuaren 22. atarian. Baten batek bi elkarten artean lehia badagoe la uste badu, oker dabil, Leosiñetako arabera. «Bi elkarten arteko harremana ona da. Elkarte bakoitzak, adibidez, senidetasun bazkari edo afariak antolatzen ditu eta beste elkarteak ordezkaritza izaten dira», diote Leosiñetako zuzendaritzakoek. Bestalde, bi elkarteak osatzen dute San Sebastian egunean 00:00etan ateratzen den danborrada.

Tute eta mus txapelketak, sukaldaritza ikastaroak, ... hainbat ekimen egin ditu urteotan guztian Leosiñetak. 84 bat bazkide ditu elkarteak eta lokala txiki geratu zaiela diote zuzendaritzako kideek: «Zaila da bazkide gehiago hartzea, ez baitugu tokirik. Baten batek erretiroa hartzen duenean, haren semea bazkide egin daiteke, baina bestela ezer ez».

Datorren asteko krosa dute orain buruan, baina 2007an ez direla esku hutsik izango aurreratu dute. Besteak beste, barrikoteak antolatu nahi dituzte elkartearen sagardo denboraldian.

0ARSOALDEKO HITZAK KUDEATZAILEA behar du (Erref.: OH-K06)

Enpresaren kudeaketaz arduratzeaz gain (lurjariaren ekonomia, finantzak, fakturazioa, harpidetza eta diru iturri berrien sustapena, giza baliabideak, diru laguntzak...), eragile ezberdinekin izan behar den harremanen kargu egingo den pertsona baten bila gabilza.

Eskaeran da:

- Euskara maila ona,
- Izaera dinamikoa, harremanetarako eta antolakuntzarako gaitasuna
- Gida baimena eta autoa edukitzea.

Kontuan hartuko da:

- Kontutan hartuko da kudeaketa-Administrazio arloko ezagutza, antzeko lanetan aritua izatea eta eskualdea ondo ezagutzea.

Interesa dutenek curriculuma, urriaren 24a baino lehen, erreferentzia zehaztuz, helbide honetara bidali: Helbide elektronikoa: gizabalabideak@jarduna.net
Posta Helbidea: Jarduna, S.L. (Giza Baliabideak Saila)
Martín Ugalde Kultur Parkea, 20140 – Andoain

Balleneros

arropa denda

Baleazaleak 10 - Tel.: 943 47 20 89 - 20011 Donostia

JUANIXO

TABERNA

ESPEZIALITATEAK:
OGITARTEKOAK,
BANDERILA
BERO eta HOTZAK

Enbeltran kalea, 6 • Tel.: 943 42 74 05 • DONOSTIA

FUTBOLA ▶ REALA

Gipuzkoan erroak, Mallorcan arrakasta

Realak asko sufritu arren azkenean salbatuko dela espero du Javier Olaizola futbolari ohiak

XABIER LOPETEGI

Futboleant, badira txikitatik amestu dutena etxean lortzeko zortea daukatenak, eta badira bestelako bideak hartu eta bi-latzten zuten arrakasta kanpoan topatzen dutenak. Javier Olaizola da azken horren adibidea. Etxetik kanpo ere badago eta norberaren irrikak betetzetik. «Realak eskaintza ona egin zidan Hector Cuper Mallorcara iritsi zenean. Ilusioa egin zidan, baina Mallorcan kontratua hobetu eta berritu zidan. Bizitzak zure tokian jartzen zaitu. Egia da futboleant hasterakoan nire bizitzako ilusiorik handiena Realean jokatzea zela. Ordaindu ere egingo nuke horren truke. Baina gero lortu dudanari erreparatuta, ezin naiz kezatu. Ez nuke ezer aldatuko».

Bi taldeek neurtuko dituzte indarrak igandean Mallorcako Ono Estadi futbol zelaian — lehengo Son Moixen —. Hasieran bihotzean zeramana, eta denborarekin bere bihotza bereganatu zuena. Zeinen alde egin? «Zalantzarik ez dut. Ez pentsa estuasunetan jartzen nauzunik. Mallorcaren alde noa. Gipuzkoarra naiz, nire anaiak Realean lan egiten du — Mitxelo Olaizola utilleroa da —, eta beti begiratzen ditut taldearen emaitzak, baina hamai-ka urte eta erdi daramatzat Mallorcan, eta klubean lanean jarraitzen dut. Igandetik aurrera, hori bai, Realak partida guztiak irabaz ditzala». Jaioterrik urrun, ikur bihurtu zen Olaizola. «Jarraitzaileek beti izan di-date begirune handia. Kapitaina izan naiz hemen. Duela hiru denboraldi erretiroa hartu nuen baina oraindik kaletik



Javier Olaizolak Mallorcan jokatzen zueneko irudia. ARGAZKI PRESS

gelditzen naute, gezurra badi-rudi ere».

Lehia orekatua espero du. «Realak zailtasun handiak dauzka partidak aurrera ateratzeko, baina ziur nago lanak emango dizkiola igandean Mallorcari. Hori bai, Mallorca ondo dabil emaitzei zein jokoa-ri erreparatuta, eta etxean itxura polita ematen ari da. Aurreko denboraldietan ez bezala, talde osoa da alor guztietan eta ez diot ahultasun nabarmenik ikusten». Ahalegin handia egin du Espainiako klubak udan, «Ez ditu Arango edo Pisculichi saldu, eta kalitate handiko fitxaketak egin ditu: Ibagaza, Tristan, Maxi, ...».

Askoz ere ezkorrago mintzo da Realaz. «Egoera zaillean sartu da, eta behetik zenbat eta beranduago atera, orduan eta gehiago kostako zaio. Konfiantza justu dabilela uste dut, eta aurkariak horrelakoetan hazi egiten dira. Hala ere, Realak ez du inoiz berehala amore eman, eta eskualde taldeen borrokara-ko grina hori izan daiteke salbatzeko balioko diona. Itxaropena badut».

Ibilbide bikaina

Espainiako Kopa behin irabazi, eta beste bi final jokatu zituen Mallorcaren Olaizolak. «Euro-pako lehiaketa guztietan jo-

FITXA ▶

Izen-deiturak. Javier Olaizola Rodríguez.
Jaioterria. Lasarte-Oria (Gipuzkoa).
Jaiotze data. 1969-11-28.
Postua. Eskuin-hegalekoa.
Altuera eta pisua. 1,78 metro eta 75 kilo.
Debuta. 1992-9-6. Burgos 4-Reala 0.
Ibilbidea. Michelin, Tolosa (1989-91), Eibar (1991-92), Burgos (1992-94), Eibar (1994-95), Mallorca (1995-2004).
Partidak Lehen Mailan. 226.
Golak. 1.
Tituluak. Espainiako Kopa txapeladuna (2003) eta Espainiako Superkopa (1998).

katu genuen. Txapeladunen Ligan barne. Meritu handia dauka horra iritsi izana». Une gogorrena? «Mallorcaren Lehen Mailara igotzeko zorian gelditu ginen lehen denboraldia, Rayoren kontra. Arlo pertsonalean, berriz, futbola uztera behartu ninduten bi lesio-ak».

Roa, Nadal, Eto'o, Luque, ... jokalaririk handiak izan ditu taldekide. «Baina Ibagaza izan zen iritsi zenetik harritu ninduen. Berehala ikusten zen entrenamenduetan besteak baino gehiago zela. Edo Engonga, erdilari gutxi gelditzen dira hura bezalakoak. Valeron, Ivan Campo... asko dira». Entrenatzaile, berriz, Josean Irulegi, Mane, Victor Muñoz, Llonpart, Cuper, Aragones eta Manzano izan zituen.

Bestalde, aurtengo udan atez-aren entrenatzaile titulu nazionala. «Hasiera batean Donostiara itzultzeko asmoa nuen. Ostadar Lasarteko taldea entrenatzeko aukera polita atera zitzaidan, baina Mallorcan oso eskaintza interesgarria egin zidan, eta itzultzea erabaki nuen. Kadeteak entrenatzen ditut, eta begirale lanak ere egiten ditut uharthean, 22-18 bitarteko gazteekin».

ASTE BURUKO EGITARUA ▶

FUTBOLA

Espainiako Lehen Maila.	
Mallorca-Reala	17:00 (etzi, Ono Estadi)
Espainiako Superliga.	
Reala-Espanyol	12:00 (etzi, Zubieta)
Espainiako emakumezkoen Liga.	
Berrioboa-Añorga	11:00 (etzi, Ibarsuri)
Espainiako 2.B Maila.	
Zamora-Sanse	17:00 (etzi, Zamora)
Emakumezkoen Liga, 1. multzoa.	
Intxaurdi B-Tolosa	12:30 (etzi, C. Benito)
Real Union-Luberri	16:00 (etzi, Irun)
Emakumezkoen Liga, 2. multzoa.	
Añorga-Inxaurdi	16:00 (bihar, Rezola)
A. Berri-Vasconia	16:00 (etzi, Martutene)
Grosete-Urmieta	17:00 (etzi, Matigoxotegi)
Espainiako 3. Maila.	
EHU-Zalla	17:30 (bihar, Matigoxotegi)
Preferentea.	
Berio-Anaitasuna	15:30 (bihar, Berio)
Zarautz-Martutene	16:30 (bihar, Zarautz)
Lehenengo Erregionala, 1. multzoa.	
Dunboa-Inxaurrondo	15:30 (bihar, Irun)
A. Berri-Munibe	17:30 (bihar, Martutene)
Lengokoak-Roteta	19:30 (bihar, C. Benito)
S. Tomas-Irun 1902	19:30 (bihar, Berio)
Bigarren Erregionala, 2. multzoa.	
Axular-La Salle	19:30 (bihar, Herrera)
Espainiako Jubenilen Ohorezko Maila.	
Antiguoko-Berceo	17:30 (bihar, Berio)
Reala-C. Durango	18:30 (bihar, Zubieta)
Amistad-R. Union	15:30 (bihar, P. Sancho)
Espainiako Jubenilen Liga.	
Reala-Danok Bat	16:45 (etzi, Zubieta)
Ariznabarra-Antiguoko	11:45 (etzi, Arizna)
Euskadiko Jubenilen Liga.	
Lengokoak-S. Ignacio	17:30 (etzi, C. Benito)
Arenas-Añorga	18:00 (etzi, Gobeia)
Antiguoko-Zarautz	12:00 (etzi, Berio)
Euskadiko Kadeteen Liga.	
Reala-Indartsu	12:00 (bihar, Zubieta)
Añorga-Antiguoko	12:00 (etzi, Rezola)

ARETO FUTBOLA

Espainiako Lehen A Maila.	
EHU-Logroño	17:30 (bihar, Bidebieta)

SASKIBALOA

ACB Liga.	
Bruesa-C. San Fernando	19:00 (etzi, Ilube)

ESKUBALOA

Europako Errekopa (emakumezkoak) itzulikoa.	
Beeker Fusie-Akaba BB	19:30 (bihar, Beek)
Euskadiko Txapelketa (gizonzkoak).	
Elgoibar-Egia	19:00 (bihar, Olaizaga)

ERRUGBIA

Espainiako Ohorezko Maila.	
Santboiana-Spyro BB	12:30 (etzi, Sant Boi)
Espainiako Lehen A Maila, B multzoa.	
Baztan-Aletiko	16:30 (bihar, Lekaroz)
Emakumezkoen Euskal Liga.	
Atletiko-Gaztedi	16:30 (bihar, Aiete)

BELAR HOCKEYA

Espainiako Ohorezko Maila (gizonzkoak).	
Atletiko-Bartzelona	12:30 (etzi, Aiete)

IZOTZ HOCKEYA

Espainiako Lehen Maila.	
Vielha-Txuri Urdin	22:00 (etzi, Vielha)

AIZKOLARITZA

Euskadiko 22. final nagusia.	
Igandean jokatuko da Tolosan, 12:00etan.	
Aurrez aurre arituko dira Joxemari Olasagasti donostiarraren batera, Iñaki Azurmendi, Joxejuan Barberena, Donato Larrebea eta Luis Txapelketa.	

FUTBOLA ▶

Hondartzako partidak bihartik aurrera Kontxan

Bihar abiatuko da hondartzako futbolen denboraldi berria. Norvegiarrek larunbat eta igande goizetan izango dira. Bestalde, senior mailako talderik ez da egongo. Soilik 5. eta 6. alebina taldeak arituko dira.

TXIRRINDULARITZA ▶

Euskadiko Sei Orduak datorren urteko otsailean

Behin Anoetako Belodromoaren obrak amaituta, Euskadiko Sei Orduak abenduan egitea aurrekusi zuten antolatzaileek. Egutegi internazionalak behartuta, ordea, otsailaren 17ra arte atzeratu dute txapelketa.

BIHAR Zinema etxean 2

mantangori berria

8 DVD euskaraz

+ 4,50 €

Aukera ezazu, BIZI euskaraz **berria**

BODYBOARD ▶



Iazko txapelketan ateratako irudia.

Donosti Bodyboard Txapelketa Zurriolan

Asteburuan jokatu da Donosti Bodyboard Air Show Txapelketa; aurrerantzean urtero egingo dela ziurtatu dute

MAIDER AZURMENDI

Bodyboard Air Show lehiaketaren bigarren edizioa jokatu da asteburuan Zurriola hondartzan. Eguraldiak laguntzen badu, lehiaketa goizeko hamarretan hasiko da. Bestela, igandera atzeratzea aurreikusi dute antolatzaileek, ikuskizun paregabera ziurtatzeko asmoz.

Txapelketa hau bigarren urtez egingo da eta antolatzaileek iragarri zuten, aurrerantzean urtero egiteko asmoa dute. Zurriola hondartzan egiten den txapelketa hau bodyboardaren baitan erreferentzia bihurtzea espero dute.

Txapelketan Europako 21 bodyboarderrek parte hartuko dute. Hauetatik lau donostiarrak dira: Beñat Elosua, Iñigo Ganzarain, Jon Peña eta Joserra Martinez. Euskal Herria, Gali-

zia, Asturias, Kanariar uharteak, Frantzia eta Portugaletik etorritakoek osatzen dute zerrenda. Antolatzaileen arabera, nazioarteko lehiaketetan oso ondo aritu direlako eta emaitza onak izan dituztelako aukeratu dituzte aipatu 21 bodyboarderrek.

Beñat Elosua donostiar gazteak 16 urte zituela txapelketa garrantzitsuenetan parte hartzeko gai zela erakutsi zuen eta orain nazioarteko hainbat lehiaketatan bere gaitasuna erakusten ari da.

Itsasaldia baldintzatuta

Lehiaketa larunbatean edo igandean jokatzeko den egunean bertan erabakiko dute antolatzaileek. Izan ere, puntuatzeko modua olatuen eta itsasoaren egoeraren arabera

izango baita. Horregatik, bali-teke maniobra bakarra edo olatu baten gainean egindako maniobra sorta puntuatu behar izatea. Hala ere, olatuak behar bezalakoak ez badira, *bow-out* modalitatean egiten dituzten maniobrak puntuatu dituzte.

Itsasaldia txarra bada ere, ikuskizuna ziurtatuta dago, urmotorren laguntzarekin egindako maniobrak erakutsiko baitituzte. Horrela, olatuen gainean hegan egingo dute, salto ikusgarriak erakutsiz.

Sariak puntuazio altuenak lortzen dituzten lau lagunek jasoko dituzte. Guztira, bi mila euro banatuko dira eta lehenengo biek sari ekonomikoa eskuratzeko gain, Mentawai uharteetarako itsas bidaia eta Kanariar uharteetara bidaia irabaziko dituzte.

SASKIBALOA ▶ BRUESA GIPUZKOA BASKET

Fisac gogotsu Ilunbeko lehen partida irabazteko

Donostiako taldeak Caja San Fernando taldearen bisita izango du igandean



Porfi Fisac Ilunbeko prentsa aretoan. IÑAKI ESNAOLA

IÑAKI ESNAOLA

Porfi Fisac Bruesa Gipuzkoa Basketeko entrenatzailea igandeko partida irabazteko gogotsu agertu zen, atzo, Ilunbeko eskaintako prentsurrekoan. Donostiako taldeak Caja San Fernando andaluziarren kontra jokatu du igandean, 19:00etan.

ACB Ligan hiru partida galdu eta bakarra irabazi ondoren, Bruesak nola hala irabazi behar dio Caja San Fernando-ri sailkapenean pixkana postu egonkorretara iristeko. Dena dela, Porfi Fisacek adierazi zuenez, «Manel Comasek gidatzen duen taldeak jokalaria oso onak ditu eta lana gogor egin beharko dugu partida irabazteko». Bruesako entrenatzaileak, batez ere, andaluziarren Price eta Marco joko antolatzaileak goraiatu zituen. Baina baita Alexander, Fomerling eta Bueno jokalaria.

Aurrez aurre arerio zaila izan arren, etzi, Bruesak ahalgin guztiak egingo ditu Ilunbeko bere lehen garaipena es-

kuratzeko. Izan ere, Fisacek argi adierazi zuen oraindik ez direla erabat gustura sentitzen kantzetan. «Presio dezentte dugu gainean eta bada garaia jokatzeko dugu heinean gozatzeko».

Taldeari dagokionez, badi-rudi Bradley estatubatuarrek ez duela jokatu, belau balaen duen tendinitisa delareta. Kammerichs, Uriz eta Esteban, aste honetako lan saioen arabera, jokatzeko prest egingo dira.

Devin Davisen afera

Jokalaria estatubatuarrek asteartean egindako adierazpen ezkorrek zeresana izan dute azken egunetan. Ondorio gisa, Fisacek bi egunetik kanpo utzi zuen pibota. Davisek esandakoaren haririk, entrenatzaileak estatubatuarra «nahastu» egin zela adierazi zuen. Honekin batera, hartu beharreko neurriak soilik berak erabakiko dituela esan zuen. Kontuak kontu, zurrerik Devin Davisek ez du igandeko partida jokatu.

zure hizkuntz eskubideak babesteko

elebide. s. Herritarren hizkuntz eskubideak bermatzeko zerbitzua.
fig. Elebitasunerako bidea.
Hizkuntzari bide egiteko zerbitzua.
Iñakik Elebidera jo zuen hizkuntz eskubide urraketa bat zela eta, kexa jartzera.

elebidun. adj./fz. Bilingüe.
elebitasun. fz. Bilingüismo.
elebitza. fz. Bilingüismo.

Hizkuntz Eskubideak bermatzeko zerbitzua
Servicio para la garantía de Derechos Lingüísticos

@ elebide@ej-gv.es

WWW www.euskadi.net/elebide

✉ Donostia-San Sebastián kalea, 1
01010 VITORIA-GASTEIZ

☎ 012

EUSKO JAURLARITZA

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikaren Sailburuordetza

GOBIERNO VASCO

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Viceconsejería de Política Lingüística



A N T Z E R K I A

► **Sonetos de amor y otros delirios, Teatro del Temple**



William Shakespeareren maitasun sonetoetatik abiatuta, maitasunean eta haren bide bihurrietan egindako bidaia.
IMANOL LARZABAL Aretoa (Lugaritz K.E.) • Urria 20-22 • 20:30

Gaur!

Z I N E M A

► **FANTASIAZKO eta BELDURREZKO ZINEMAREN XVII. ASTEA**

www.sansebastianhorrorfestival.com
Urriak 28 – azaroak 4

Film Luzeen Lehiaketa Salla
Film Laburren Lehiaketa Salla
David Cronenberg (Atzera begirakoa)
Haurrentzako zinema

Erakusketak:
Mircala Etxea
Toni Galindo: Zure begientzat bakarrik

III. Komiki Jardunaldiak:
Wrightson, Paco Alcázar, II. Fantasiarazko Euskadi / Euskadi Fantástico II

Gonbidapen zozketa Donostia Kulturako web orrian
(www.donostiakultura.com)



H A U R Z I N E M A

► **Julieta, fokaxko xelebrea (Romeo & Juliet, sealed with a Kiss, 2005). Phil Nibbelink.**

AEB. 80 min. Ikusle guzientzat gomendatua.
IMANOL LARZABAL Aretoa (Lugaritz K.E.) • Urriak 21 • 17:00

D A N T Z A

► **La mar de formas, Lanónima Imperial Dansa**

Haurrentzako ikuskizuna. Forma berzko, bizi edo adimentsuak, gero eta fantasia handiagoko historia batean nahasturik.
Egia Kultur Etxea (Gasteszena) • Urriak 21 • 18:00

L I T E R A T U R A

► **IpuinARTean-Encuentos**

Ipuin kontaketa 5 urtetik gorakoentzat.
Okendo Kultur Etxea (Gros) • Urriak 20 • 18:00


Gaur!

E R A K U S K E T A K

► **Inkak iritsi arte**

Peruko antzinako kultura, espainiar konkistatzaileak iritsi aurretikoa, Kristo aurreko bigarren milurtekoetik hasita Inken Inperiara bitartean (XV-XVI. mendeak).
San Telmo Museoa • Urtarrilaren 7a arte

ZINEMA ► FANTASIAZKO ETA BELDURREZKO ZINEMAREN XVII. ASTEA

David Cronenberg *A history of violence* filma.*El ejercito de los muertos* filmaren irudia.

Soldadu zonbiak, Cronenberg eta 'Alien' en ondorengoa

Urriaren 28tik azaroaren 4ra egingo den Beldurrezko eta Fantasiarazko astearen egitaraua aurkeztu dute

ION LOPEZ

Beldurgarria, barregarria, nazkagarria, higuigarria, hunkigarria... Adjektibo guzti hauek eta askoz ere gehiago aipa daitetzke Fantasiarazko eta Beldurrezko Zinemaren asteaz hitz egiterakoan. Aurten 17. edizioa betetzen da eta egitarauari begiradaxo bat botata, indartsu datorrela nabari da.

Sail Ofizialean 16 filmak hartuko dute parte lehiaketan eta beste zortzi lehiaketatik kanpo eskainiko dituzte. Zortzi horietako bi, *End of the line* eta *Black sheep*, Europako estreinaldia izango dute Donostian.

Urtero bezala, hiru gau berezi antolatuko dituzte. Urriaren 28an *Masters of Horror* deitutakoa izango da. Joe Dante zuzendariaren *El ejercito de los muertos* filma aurkeztuko dute gau horretan. Irakeko gerratik itzultzen diren soldadu zombien istorioa kontatzen du filmak. AEBtan sekulako polemika sortu duen pelikula da. Bestalde, *Ustekabeen gaua* antolatuko dute urriaren 31rako, Halloween gauerako. Ustekabeko filma aurkeztuko dute gau horretan. Azaroaren 3an

Gau Bukaezina delakoan, aste-ko pelikularik beltzenak eta gogorrenak ikusi ahal izango dira.

Film laburrei dagokienez, 13k hartuko dute parte lehiaketan. Antzoki Zaharrean eskainiko dituzte film luzeen aurretik, baina azaroaren 4ean 17:00etatik aurrera, euskarazko azpitu-luekin ikusi ahal izango dira film labur guztiak.

David Cronenberg zuzendariari atzerabegirakoa eskainiko diote Principe zinemetan. Zuzendari kanadiarraren filmografia guztia ikusteko aukera bikaina izango da. Hemen

ikusi ez ditugun zenbait pelikula ere ikusi ahal izango dira.

Kursaalean ere emanaldiak izango dira 4ean. 17:00etan *Cristobal Molon* euskarazko animaziozko filma eskainiko dute. Aurtengo astearen itxiera ekitaldian *The host* pelikula eskainiko dute Kursaalean bertan. Bong Joon-ho zuzendari korearraren filmak oso kritika onak jaso ditu aurkeztu den jaialdi guztietan. Hainbat kritikariren ustetan, pelikula hau *Tiburón* eta *Alien* filmen ondorengoa izango da. Beraz, bukaera indartsua izango du asteak.

*The host* filmaren irudia.

LEHIAKETA ▶

Haize Zabaleko Margo Lehiaketa
bihar Egiako Plaza Haundin

Arratibel estudioak Haize Zabaleko Margo Lehiaketa antolatu du bosgarren aldiz. 0 eta 16 urte bitarteko hiru kategoriatan banatu dute lehiaketa: 6 urte arte; 7 urtetik 10 urtera artekoak eta, 11 urtetik 16 urtera bitartekoak. Kategoria bakoitzeko hiru sari egongo dira. Hala ere, parte-hartzaile guztiei oparixto bat eta askaria emango diete. 09:00ak eta 11:00ak bitartean paperak zigilatuko dituzte eta 13:00ak arteko tartea izango du bakoitzak bere marrazkia egiteko; hori bai, gai librean. Sari banaketa, berriz, 17:00etan izango da. Parte-hartzaileek marrazteko gogoak bakarrik eraman beharoko dute, materiala antolatzaileek emango baitiete.

▶ **Noiz.** Bihar goizean zehar.

▶ **Non.** Plaza Haundin (lanek uzten ez badute, Plaza Berrin).



Marrazki lehiaketa iaz. R. PEREZ

HAUR TXOKOA ▶

Larunbatero haur
eta gurasoentzat
ateak zabalik

Bihartik aurrera larunbatero, Groseko Haur txokoak (Oken-do kultur etxean) haurrei eta haien guraso edo tutoreei atek irekiko dizkie. Hartara, elkarrekin jolasteko aukera izango dute.

▶ **Noiz.** Larunbatero,

10:00etatik 13:30era.

▶ **Harremanetarako telefonoa.** 943 291241.



Aita-alabak jolasean.

AGENDA ▶

▶ ekitaldien berri emateko, agenda@irutxulokohitza.info helbide elektronikoa, 943 467236 telefonoa edo 943 446532 faxa erabili

GAUR (OSTIRALA 20)

Antzerkia. El Templeren *Sonetos de amor y otros delirios*. Lugaritz kultur etxeko Imanol Lartzabal aretoan, 20:30ean. Sarrerak 10 euro.

Ipuin kontalaria. Ipuin kontaketa berezia 5 urtetik gorako haurrentzat, *IpuinARTEan* erakusketaren harira. Okendo kultur etxean, 18:00etan.

Ipuin kontalaria. Ipuinaren ordua 5 urtetik gorako haurrentzat. *Akerraren adarrak bezain ipuin okerrak*. Lugaritz kultur etxean, 18:00etan.

Musika. Oboe kontzertua Musikenen (Miramar jauregia), 18:15ean.

Ipuin kontalaria. Ipuinaren ordua 5 urtetik gorako haurrentzat. *Egun euritsueterako ipuin bustiak*. Larrotxene kultur etxean, 18:00etan.

Irteera. 55 urtetik gorakoentzako ibilaldia Donostian zehar. Irteera Ernest Lluch kultur etxetik, 11:00etan.

Tailerra. Haurrentzako natur tailerra. *Naturarekin jolasean*. Igeldon, 17:00etan.

Solasaldia. *Nekazaritzaren bilakaera eta nekazaritza ekologikoa* solasaldia Aitor Aranbu-

ru, EHNEko kidearekin. Itsas-aurre elkartearen (Igeldon), 20:00etan.

Hitzaldia. *El arte de vivir* hitzaldia Jon Shin Jyutsu teknikaren inguruan. Vega Garciak emango du hitzaldia, Jin Shu Jyutsun diplomatua. Ernest Lluch kultur etxean, 19:30ean.

BIHAR (LARUNBATA 21)

Zinema. Haurrentzako zinema euskaraz. *Julieta fokatxo xelebrea*. Lugaritz kultur etxeko Imanol Lartzabal aretoan, 17:00etan.

Antzerkia. *Sonetos de amor y otros delirios* antzezlanaren El Temple taldeak eskainia. Lugaritz kultur etxeko Imanol Lartzabal aretoan, 20:30ean. Sarrerak 10 euro.

Dantza. Lanonima Imperial Dansak *La mar de formas* aurkeztuko du. Haurrentzako ikuskizuna. Egiako Gazteszenan, 18:00etan. Sarrerak 3,5 euro.

Tailerra. 9 eta 12 urte bitarteko gaztetxoentzat topagunea. Fantasiatzako makilaje tailerra. Antiguako merkatuan, 16:00etatik 18:00etara.

Tailerra. 13 eta 17 urteko gazteentzako topagunea. Makilaje

El Templek *Sonetos de amor y otros delirios* eskainiko du gaur Lugaritzen.

tailerra. Antiguako merkatuan, 18:30etik 21:00etara.

Solasaldia. Fnac irakurketa kluba. Julio Verne taldea. *Los detectives del tiempo. La conspiración en la ciudad de los muertos*. Fnac Forumean, 12:00etan.

Musika. Cool Panic-en zuzeneko emanaldia. *Nowhere Herat*. Fnac Forumean, 19:00etan.

Musika. II Giardino Armonico eta Magdalena Kozena mezzosopranoa. Giovanni Antonini izango da zuzendari. Kursaal auditoriumean, 20:00etan.

ERAKUSKETAK

Ilustrazioak. Elena Odriozola ilustratzailearen erakusketa.

Ernest Lluch kultur etxean, urriaren 21a arte.

Pintura. *Pentsamenduak*. Leire Salaberria artistaren margoak. Egia kultur etxean, urriaren 27a arte.

Argazkilaritza. *Mapa irekiak* erakusketa Latinoamerikako egungo argazkilarien lanak daude ikusgai. Kursaalako Kubo aretoan, azaroaren 5a arte.

ERAKUSKETA ▶

Ekialdeko eraginez betetako erakusketa

Ramon Hernandez donostiarraren margoak

ERREDAKZIOA

Ramon Hernandez Juantegui margolari donostiarraren erakusketa dago azaroaren 11 arte Galeria 16 arte galerian. Taldekako nahiz bakarkako hamaika erakusketetan parte hartu du Hernandezek. Hala ere, donostiarrak izan arren, hau da bere hirian egin duen lehendabizikoa. Orain arte Lon-

dres, Paris eta Chicagon aritu da, besteak beste.

Hernandezek ondo ezagutzen ditu Ekialdeko kultura, zen kultura eta Tibeteko budismoa eta hori isladatu du ikusgai dauden koadroetan.

▶ **Non.** Galeria 16en (Artzai Onaren plaza 16).

▶ **Noiz arte.** Azaroaren 11 arte.



Ramon Hernandezek tinta txinatarraren erabili du koadroak egiteko. GALERIA 16

JARDUNALDIA ▶

Festa berriak eta horiek folklorean izan duten eragina aztertuko dituzte

Eusko Ikaskuntzak antolatuta, XXI. mendeko festa modu berriak eta horiek folklorean izan duten eragina aztertuko dute bihar *Festa berriak. Aintzinako folklorea eta gaur egungo ekin-tzak* jardunaldian. Horretarako, Antropologia eta Folklorean adituak etorriko dira Donostiara. Jardunaldian zehar gai askoren inguruko ponentzia eta hitzaldiak aurkeztuko dituzte; esaterako, Enkarterrietako festa berriak, San Fermin festak Iruñean, hiri folklorea edota Olenzeroren irudiaren inguruko Gabonetako festak, besteak beste. Parte-hartzea libre izango da.

▶ **Noiz.** Bihar, urriak 21, 09:30etik hasi eta 19:00ak arte gutxi gorabehera.
▶ **Non.** Miramar jauregian.

TELEFONO ZENBAKIAK ▶

LARRIALDIAK

SOS Deiak	112
Gurutze Gorria	943 222222
DYA	943 464622
Itsasoko Gurutze Gorria	943 431507
Farmaziak	943 429117
Suhiltzaileak	080

OSASUNA

Larrialdiak	943 461111
Donostiako ospitaleak	
▶ Amara	943 007400
▶ Arantzazu	943 007000
▶ Gipuzkoa	943 006000
▶ Psikiatria	943 007213
▶ Larrialdi orokorrak	943 007053
Poliklinika	943 309400

POLIZIA-TRAFIKOA

Ertzaintza	943 538606
Udaltzaingoa	092
Udal garabia	943 320658

MATXURAK

Iberdrola	901 202020
Donosti Gas	943 445090/91
Naturgas	900 400523
Ur matxurak	943 481050
Euskaltel	045
Telefonica	1002

GUARDIAKO FARMAZIAK ▶ GAUR

EGUNEZ (09-00-22:00)

- ▶ **M.T. Sorondo.** Zumardien Pasealekua 22 (Bidebieta). 943 399050
- ▶ **R. Agirre.** Isabel II.a hiribidea 25 (Amara Berri). 943 458340
- ▶ **Iruretagoiena-Camino.** Urbieta 33 (Erdialdea). 943 466508

GAUEZ (22:00-09:00)

- ▶ **M. L. Etxeberria.** Txurruka 5 (Erdialdea). 943 426224

ZINEMA ARETOAK ▶

TRUEBA (Sekundino Esnaola, 2. ▶ 943 271 391. Ikuslearen eguna: asteartea)

▶ Los Borgia	16:45 19:30 22:15
▶ Alatriste	16:45
▶ <i>Vivre sa vie</i> (gaztelaniaz azpiztitulua)	19:30 22:15

ANTIGUO BERRI (Zarautz 1. ▶ 943 219120. Ikuslearen eguna: astelehena)

▶ Kutsidazu bidea, Ixabel (gaztelaniaz azpiztitulua)	17:15 20:00 22:30
▶ El diablo se viste de Prada	17:00 19:45 22:15
▶ La prueba del crimen	17:00 19:45 22:15
▶ Click	17:00
▶ Nueve vidas	19:30 22:15
▶ Yo soy la Juani	17:15 20:00 22:30
▶ Tu, yo y ahora... Dupree	17:00
▶ El viento que agita la cebada	19:45 22:30
▶ The guardian	16:45 19:30 22:15
▶ Wicker man	17:15 20:00 22:30

BRETXA (Arrandegia eraikuntza. ▶ 943 421 371. Ikuslearen eguna: asteartea)

▶ World Trade Center	17:45 20:15 22:15
▶ Wicker man	16:00 18:15 20:30 22:45
▶ Tu, yo y ahora... Dupree	16:00 18:15 20:30 22:45
▶ El diablo se viste de Prada	16:00 18:15 20:30 22:45
▶ Los Borgia	16:15 19:15 22:15
▶ Yo soy la Juani	16:00 18:00 20:00 22:00
▶ The guardian	16:30 19:15 22:00
▶ La prueba del crimen	17:15 19:45 22:30

ESTREINALDIAK ▶

Hijos de los hombres. AEB-Britania Handia. Zuz.: Alfonso Cuarón. Akt.: Clive Owen, Julianne Moore, Michael Caine. 109 minutu (Principe, Cinebox). Zer gertatuko litzateke emakumeek erditzeko gaitasuna galduko balute? Galdere hori da film honen ardatza. 2027. urte-rak darama ikuslea pelikula honek. Gizadia kaosaren artean ari da desagertzen, baina Teok (Clive Owen) oraindik badu etorkizuna salbatzeko itxaropena.

Pequeña Miss Sunshine. AEB. Zuz.: Jonathan Dayton, Valerie Faris. Akt.: Greg Kinnear, Steve Carell, Toni Collette. 101 minutu (Principe, Cinebox). Ezohizko komedia familiarra eraman dute zinemetara film honetako zuzendariak. Hoover familiako alaba txikiena edertasun lehiaketekin tematuta dago eta egun batez Miss Sunshine txikiaren lehiaketara joatera gonbidatuko dute. Familia guztiak herrialde osoa zeharkatu beharko du fungoneta zahar batean. Hor hasiko da familiaren abentura.

Yo soy la Juani. Espainia. Zuz.: Bigas Luna. Akt.: Veronica Echegui, Dani Martín, Laya Martí. 90 minutu (Antiguo Berri, Bretxa). Juani 15 urte zituenetik dabil bere mutil lagunarekin. Baina etengabe eztabaidan aritzeaz kokoteraino dago eta harremana bertan behera uztea erabarrak du. Elkarrekin zebiltzanean egin ez zituen gauzak egiten hasiko da Juani, tartean aktore arrakastatsu bihurtzea du helburu.

Wicker Man. AEB. Zuz.: Neil LaBute. Akt.: Nicolas Cage, Ellen Burstyn, Molly Parker. 103 minutu (Antiguo Berri, Bretxa). Beldurrezko pelikula da Nicolas Cageren azkena. Edward Malus agentea (Nicolas Cage) Summersisle irlara doa bere emazte ohiaren alaba han desagertu zelako. Hor iraganeko moldetan bizi den gizartea aurkituko du. Itxuraz leku zoragarria da, baina erlijio zahar eta pagano batekin harremana duen sekretu handi bat du. *Wicker Man* Euskal Herrian estreinatu ez den pelikula baten moldaketa da.

La prueba del crimen. AEB. Zuz.: Wayne Kramer. Akt.: Paul Walker, Cameron Bright, Vera Farmiga. 121 minutu (Antiguo Berri, Bretxa).

Thriller gogorra da Wayne Kramer zuzendariaren azkeneko pelikula. Joey Gazelle mafia-rentzat lan egiten duen hiltzailea da. Baina bere karrera arriskuan egongo da hilketa bat egiteko pistola lapurtzen diotenetik.

La dalía negra. AEB. Zuz.: Brian de Palma. Akt.: Josh Hartnett, Scarlett Johansson, Hilary Swank. 121 minutu (Principe). Hollywooden gertatutako benetako hilketa batean oinarrituta dago thriller hau. Bi detektibek Elizabeth Short aktorearen hilketa bortitza ikertu behar dute. Horietako batek, Bleichertek, bi emakumerenganako erakarpena sentituko du. Bat, gainera, bere kidearen emaztea da.

Beste estreinaldiak:

- ▶ *Copying Beethoven* (Principe).
- ▶ *Vivre sa vie* (Trueba).

▶ hilberriak ▶ urteurrenak ▶ eskertzak

Gipuzkoan 50.000 etxetara

HITZA guztietan prezio beragatik

ESKELAK
19:00ak arte hartzen dira

Tel.: 943 46 72 36 - 647 319 761
donostia@irutxulokohitza.info



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA



Harpidedunei banatua ▶ 2006ko urriaren 20a ▶ Ostirala

IRUTXULOKO HITZA LAGUNTZEN DUTEN ERAKUNDEAK Donostiako Udala Gipuzkoako Foru Aldundia

GAURKO EGURALDIA goizez arratsaldez beroena 19 hotzena 17 BIHARKO EGURALDIA goizez arratsaldez

GAURKO ITSASALDIAK ordua: 04:15 - 16:30 metroak: 3,95 - 4,11 ordua: 10:14 - 22:37 metroak: 1,15 - 1,04

HITZA-KO BEZEROEN ARRETA ZENBAKIA (zalatuzak argitzeko, harpidedun egileko...) **902 82 02 01**



Ikasleak adi-adi Koperniko gelako pantailako azalpenak entzuten. A.I.



Miriam, Irati eta Martin eguzkia, ilargia eta lurra heltzen. A. IARTZA



Lurraren ezaugarriak azaltzen.

Koperniko txikiak

KUTXAGUNEA ▶ Egunero hainbat ikastetxetako kideek parte hartzen dute Zientziaren Kutxaguneak antolatutako programan; Axularrekoekin egon gara



Axularreko 5.B mailako ikasleak Kutxagunearen kanpoaldean. AITZIBER IARTZA

AITZIBER IARTZA

Zientziaren Kutxaguneko giro lasaia, Axular lizeoko 5. mailako ikasleen zarak hautsi du. Ez da harrizkoa, izan ere, Iñaki Garijo Axularreko irakasleak esan digunez, «gogoz etorri dira, baina horrelakoetan beti aztoratzen dira apur bat».

Zientziaren Kutxaguneko ikastetxeentzat bereziki prestatutako programa du, eta Haur Hezkuntzatik hasi eta Batxilergora arteko ikasleak hartzen ditu. Adin tarte bakoitzarentzat egokitutako bisitaldiak eta tailerrak dituzte.

Axularreko ikasleak bi taldeetan banatu dituzte. 5.A mailakoak planetariora sartu dira, eta 5.Bkoak, berriz, tailerrera. Azken hauekin abiatu gara, tailerra zer nolako den jakiteko.

«Hau Koperniko gela da. Ba al dakizue zein zen Koperniko?», galdetu du Eneko Calvo Etxarte begiraleak. «Astronomo bat», erantzun du ikasle

prestu batek. Eta hain zuzen, astronomia kontuak ikasiko dituzte. Begiraleak gelan 7. zenbakia norik duen galdetu du: Martin Fernandez da. Martini areto erdira ateratzeko eskatu dio, eta munduko bola eman dio. Munduaren ezaugarriak aztertzen hasi dira, eta Axularreko ikasleek trebeak direla erakutsi dute. Baina, ezaugarri batzuk trabatu egin zaizkie. «Zein mugimendu egiten ditu lurra?», galdetu du Eneko Calvo. «Errotazioa», erantzun du batek. «Oso ongi, eta beste mugimendua, alegia eguzkiaren inguruan egiten duena, nola deitzen da?». Isiltasuna nagusi. «Trans...», lagundu nahi izan du Eneko. «Trans-tornoa», bota du batek. «Transtornoa? Zuk, bai», esan dio Eneko barrez. Erantzuna lortzeko aukera handirik ez zegoela ikusita, «translazioa, translazioa da», esan du begiraleak. Ondoren, Miriam Igarate ateratu du begiraleak erdira, eta eguzkia eman dio. Eguzkiari buruzko azalpenak eskaini eta gero, Irati Kerejetari ilargi bola eman dio. Hor ibili dira hurrak, errotazioak, translazioak, eklipseak eta abar irudikatzen, batetik bestera. Pozik ateratu dira ikasle guztiak, eta beste gelakoekin txandatu, planetariora bidea hartu dute.

AGURRAK ▶



ZORIONAK
Mariaje!



ADIORIK EZ
Eneko.
Internet bidez jarraitu beharko dituzu gure ibilerak. Zorte on!

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

- ▶ CLICK DONOSTIA argazki denda (Peñaflorida 6) • Tel.: 943 423100
- ▶ FOTO MIKI (Matia kalea 3) • Tel.: 943 214703
- ▶ JAUPE liburudenda (Larrabxo pasealekua 39) • Tel.: 943 393778
- ▶ DAM arropa denda (Narrika 23) • Tel.: 943 424567
- ▶ EASO LIBURUDENDA (Mandasko dukea 9) • Tel.: 943 277102/943 292557

hitza
agurren tartea

Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak...